


*Itzak.  
AKK.  
Bozeman.*

## PROPOSAMEN / MOZIOA



### **Israelen basakeriak gaitzetsi eta herri palestinarrari elkartasuna adierazteko, bereziki Gazako herritarrei**

Palestinaren egoera ez zaigu arrotza. Hainbat herrialdetan banatuta eta gabezia gorrian bizi dira errefuxiatu palestinarrak, eta beste horrenbeste Jerusalem bizi diren palestinarrak, Zisjordanian apartheid politikoaren egoeran bizi diren pertsonak eta Gazan itxita bizi direnak, blokeo anker eta bidegabea pairatzen.

Gazako herritarrentzat, azken bost urteotako blokeoa suntsitzailea izan da. Eremu txiki batean konfinaturik, Israelgo armadaren erasoen jomuga bihurtu da gizarte zibila, azken egunotan modu ezin lazgarriagoan hedabideetan ikusi ahal izan dugun bezala. Makurra da, era berean, familiarengandik, lagunengandik, unibertsitatetik eta Palestinako lurralde okupatueta gainontzeko gizartearengandik isolatuta egotea.

Blokeoa hasi zenez geroztik, 350.000 haur jaio dira Gazan. Munduan dagoen espetxerik handiena bihurtu da Gaza, eta bertan harrapatuta dauden haurrek ez dute besterik ezagutzen.

Israelen okupazio militarra, 1967az geroztik irauten duena, legez kontrakoa eta bidegabea dela adierazi dute Nazio Batuen hainbat eta hainbat ebazpenek.

Horregatik guztiagatik, eta Israelek azken egunotan Gazako zerrendaren aurka eta bertako jendarte zibilaren aurka modu erabat ankerrean egindako bonbardaketen aurka, Zarauzko Udaleko osoko bilkurak, ondorengo adierazpena onartu eta jakinarazi nahi du:

1.- Zarauzko Udalak bere elkartasuna eta babesak eskaini nahi dio Palestinar herriari eta herritarrei.

2.-Zarauzko Udalak bere gaitzespen irmoa adierazi nahi du, Palestinar herria eta herritarrak Israel gobernuaren aldetik, behin eta berriro jasaten ari den etengabeko erasoengatik eta giza eskubideen urraketengatik.

3.-Zarauzko Udalak dei egiten die nazioarteko eragile zein eragina izan dezaketen Estatuei, herri guztiek duten bake eskubideagatik, bitarteko guztiak jar ditzatela:

Batetik, Palestinan giza eskubideen urraketekin amaitzeko, herritar guztiei, bereziki sektorerik ahulenei eta haurrei oinarri oinarrizkoak diren elikadura eta osasun bitartekoak bermatuz.

Bide honetan Zarauzko Udalak erabakitzen du Israelek bere apartheid politika mantentzen duen bitartean nazioarteko BDS (Boikot, desinbertsioak eta zigorrak) kanpainari babes ematea, Isralekin harremanak hautsiz, boikota sustatuz eta palestinarrakiko zubiak eraikiz, bizi duten egoera ezagutu ahal izateko.


Bestetik, nazioarteko legeria urratuz eta Nazio Batuen Erakundearen ebazpenen aurka Israelek Gazako zerrendari ezarritako blokeoari amaiera emateko.

4.-Zarauzko Udalak dei egiten die zarauztarrei, Israelen giza eskubideen urraketak salatu eta palestinari herriari elkartasuna adierazteko gizarte mugimenduek zein erakundeek deitutako mobilizazioetan parte hartzea, Palestinari herriarekiko eta herritarren bake eta bizitza eskubideengatik.

5- Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Kanpo Harremanetarako bitartekaritza erabiliz, Israelgo erakundeei helaraztea errefusatze adierazpena eta eskatzea Gazarekiko blokeoarekin amai dezala, bai eta palestinari herriaren eskubideen urraketari amaiera eman diezaiola, noizbait bi aldeek artean heldu beharko duen akordioaren parte-hartzaile zuzena baita.

**2012ko Azaroaren 22a**

**BILDU**



**ARALAR EZKER ANITZA**

